# ARABA EUSKARAZ 2022 ORIENTAZIO PROBA




## LAUDIO IKASTOLAK ARABA EUSKARAZEKO JARDUERA PROGRAMARAKO ANTOLATUTAKO EKINTZA

Laudio Ikastolak ORIENTAZIO PROBA antolatuko du maiatzaren 7an 2022ko Araba Euskarazeko ekintzen plangintzaren baitan.

Hitzorduak Aldai plazatik abiatuko den 5 kilometroko ibilbidea eskainiko du 09:30etik 13:30era eta kale artetik gauzatuko denez ez du desnibelik izango, hortaz, edozeinek har dezake parte.

Partaideek gehienik jota 3 orduko tartea izango dute erronka burutzeko. Erabiliko den mapa froga honetarako espresuki diseinaturik dago eta zehaztasun handiz irudikatzen ditu errealitateko detaile txikienak. Parte hartzaile bakoitzak erabakiko du zein kontrol puntutik (balizatik) pasa eta batetik bestera joateko biderik azkarrena eta egokiena ere.

### FAMILIAN ZEIN LAGUN ARTEAN PARTE HARTZEKO EKINTZA

Adin guztietarako egokitutako proposamena da familia giroan zein lagun artean parte har dezagun, gehienez bosteko taldeetan antolatuta.

Orientazioaren bidez balizak topatzea da gakoa. Altxorraren bila antzeko jolasa da. Kasu honetan, partaide/talde bakoitzak egunean bertan jasoko duen mapa baten laguntzaz herrigunean kokatuta dauden ahalik eta kontrolgune (baliza) gehien aurkitzea izango du helburu, ahal den denbora laburrenean.

### IZENA EMAN APIRILAREN 25A BAINO LEHEN

Proban parte hartzeko derrigorrezkoa izango da aurretik izena ematea apirilaren 25a baino lehen ondorengo formularioaren bidez.

**izena eman**

Jantzi Araba Euskarazeko kamiseta eta zabaldu bidea orientazioari!